

'Bago!az' casting-ean parte hartzeko baldintzak

EITB Euskal Komunikazio Talde Publikoak (aurrerantzean, EITB) –helbidea: Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo–, PAUSOKA ENTERTAINMENT, SL ekoizpen-etxearekin batera, **Bago!az lehiaketaren casting** prozesua abian jarri du eta, *casting*-ean parte hartu ahal izateko, eitb.eus/bagoaz webera bideoak igotzeko deialdia egin du.

Jasotako materiala (aurrerantzean, grabaketak) argitaratu, erreproduzitu eta publikoki komunikatu ahal izango dituzte EITBk eta bere mendeko sozietateek, eta hirugarrenei laga ahal izango dizkiete.

Bidaltzaileak/parte-hartzaileak baimena emango die EITBri eta horren mendeko sozietateei materiala eta grabaketak www.eitb.eus webgunean eta taldearen edozein programatan erakusteko, bai eta era guztietako euskarrietan eta teknikoki erreproduzitzeko edozer prozedura edo ustiapen-sistema erabiliz erreproduzitzeko, banatzeko eraldatzeko eta publikoki komunikatzeko ere –espresuki barne hartzen dira bideo-euskarria, Internet bidezko hedapena eta garapen interaktiboa, denbora- eta lurralde-mugarik gabe, eta hirugarrenei lagatzeko aukerarekin–.

EITBk materiala eta grabaketak bere programak promozionatzeko erabili ahal izango ditu.

Halaber, bidaltzaileak hurrengo hauek bermatuko ditu:

- ☐ Materiala zuzenean bidaltzaileak lortu duela, materialaren gaineko eskubideen jabetza eta kontrola dituela eta agiri honetan zehaztutako baldintzetan EITBri lagatzeko gaitasuna duela.
- ☐ Materialaren edukiaren artean ez dagoela inolako pertsona, enpresa edo elkarterentzako difamaziorik, irainik edo kalumnariarik, eta ez dituela hirugarrenen jabetza intelektualeko, jabetza industrialeko edo bestelako eskubideak urratzen.
- ☐ Eskubide-lagapen hau gauzatu ahal izateko, materialean agertzen diren pertsonen baimenak dituela.
- ☐ 16 urte baino gehiago eta 23 baino gutxiago dituela.
- ☐ Ez dela EITBren edo horren mendeko sozietateen langilea.
- ☐ Materiala egiazkoa eta benetakoa dela.

EITBk materiala eta grabaketak ez hedatzeko eskubidea du.
Bidaltzaileak emandako datu pertsonalak EITBNET, SAUren (EITBNET) titulartasuneko *GIZARTEAREKIKO HARREMANAK* izeneko fitxategian

gordeko dira, baita PAUSOKA ENTERTAINMENT, SLk helburu horretarako prestatutako fitxategian ere, '**Bago!az'en** castingaz eta ekoizpenaz arduratuko baita.

Fitxategiaren helburua EITBren hedabideetan argitaratzeko eta/edo emateko jasotako materiala kudeatzea izango da. Datuak Babesteko Lege Organikoak erregulatzen dituen datuetara sartzeko eta horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkarazteko eskubideak baliatzeko, gutun bat eta NANaren fotokopia bidali beharko dira EITBren Departamentu Juridikoaren Zuzendaritzara (Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo).

Agiri honetan adierazitako baldintzaren bat bete ez duelako erreklamaziorik sortzen bada, bidaltzailea izango da erantzule.